

## LARRY TRASK

Robert Lawrence Trask, University of Sussex-eko hizkuntzalaritza irakaslea eta ohorezko euskaltzaina, 2004ko martxoaren 27an hil zen. Bere oroimenak, ordea, luzaroen iraunen du gure artean, hizkuntzalaritzaren arloan erein zuen hazia ez baita hil eta, bereziki, euskalaritzaren baratzean landatu zuen arbolak segituko baitu fruituak ematen.

Larry Trask, iparramerikarra zen, nahiz eta hizkuntzalaritza zereginetan sartu zenetik Britainia Handian bizi. New York-eko estatuan jaio zen, baina hiri handitik urrun, 1944ko azaroaren 10ean. Unibertsitatean bereziki zientzia kimikoek erakarri zuten bere interesa eta, arlo honetan, *Master* titulua irabazi zuen Brandeis University-n. Kimika ikasketa horiek bukatu eta gero, eta doktoradutza hasi baino lehen, Turkiara joan zen kimika irakastera, Estatu Batuetako gobernuaren programa baten bidez (*Peace Corps*). Larryk bere biografia laburrean kontatzen duenez, Turkian zegoelarik egoera politikoa zaildu zen eta Ingalaterrera joatea pentsatu zuen, egun gutti batzuk pasatzeko asmoz. Ingalaterran, ordea, bere lehen emaztea izango zena, Esther Barrutia, Elorriokoa, ezagutu zuen eta orduan hasi zen euskara eta hizkuntzalaritza ikasten. Horren ondorioz, egun gutti horiek egonaldi luze bihurtu ziren. Ingalaterran hizkuntzalaritza ikasketak egin zituen eta doktoradutza irabazi, Londresko School of Oriental and African Studies delakoan, euskararen gaineko doktorego tesi batekin. Euskara batez ere Elorrian eta Milafrangan ikasi zuen, hizkuntzari buruzko ikuspegi zabala bereganatuz. Ingalaterran aurkitu zuen irakasle lanpostua. Liverpoolgo Unibertsitatean lan egin zuen, Sussexekora joan baino lehen.

Bere bizitzaren azken hamar urteetan edo, Larry Trasken izena ohorezko mailara igo zen. Munduko hizkuntzalaririk ezagunenetakoa zen hil zenerako. Oso urte gutitan liburu andana argitaratu zuen eta liburu horiek arrakasta handia izan dute. Lagun batek behin kontatu zidan Trasken liburuek apal oso bat betetzen zutela bere apalategietan. Sei hiztegi teknikoren egilea izan zen: *A dictionary of grammatical terms in linguistics* (Routledge, 1993), *A dictionary of phonetics and phonology* (Routledge, 1996), *A student's dictionary of language and linguistics* (Arnold 1997), *Key concepts in language and linguistics* (Routledge, 1999), *The dictionary of historical and comparative linguistics* (Edinburgh Univ. Press, 2000) eta *The Penguin dictionary of English grammar* (Penguin, 2000). Hiztegi hauek argi eta garbi erakusten dute Trask irakaslearen jakituria oso zabala eta sakona zela hizkuntzalaritzaren arlo guztietan. Euskalaria zen eta hizkuntzalaritza historikoan aditua, baina ez zen hortara bere jakituria mugatzen, ez eta hurrik eman ere. Hiztegi hauek oso arrakastatsua izan dira, esan bezala, eta munduan zehar ikerlari eta ikasle askok erabiltzen dituzte. Duela gutti Trasken fonetika eta fonologiazko hiztegiaren txinerazko itzulpena (*Yu yin xue he yin xi xue ci dian*) ikusi dut. Hiztegi hauek Trasken kontzepturik zailenak ere modu zehatz eta ulerkor batean azaltzeko zeukan erreztasun harrigarria erakusten dute.

Idatzeko gaitasun bera nabari da irakurlego zabal batengana iristeko idatzi zituen hizkuntzalaritzaren oinarrizko bi liburuetan, *Language: The basics* (Routledge, 1995)

eta *Introducing Linguistics* (Icon, 2000); hizkuntzalaritza zer den jakin nahi duenarentzat agian sarrerarik hoberena eta, dudarik gabe, atseginena.

Beste bi liburu idatzi zituen ingelesez idazteko arauetz, *The Penguin guide to punctuation* (Penguin, 1997) eta *Mind the gaffe: the Penguin guide to common errors in English* (Penguin, 2001). Hauek ere oso erabilgarriak suertatu dira ingelesez idazten duten askorentzat.

Larry Trask, beraz, bere bolizko dorrean bizi den akademilariaren guztiz kontra-koa zen. Haren lan hauekin irakurleko orokorrarengana iristen saiatu zen eta liburu hauek haren izena unibertsitatetik at ezagutarazi zuten. Iaz *The Guardian* (2003/VI/26) egunkarian elkarritzatu zuen kazetari batek idatzi zuenez, hizkuntzalaritzaren munduaz kanpo ere ospetsu izatea merezi zuen.

Hizkuntzalaritza historikoaren arloan bi testuliburu argitaratu zituen: *Language change* (Routledge 1994), laburragoa, eta *Historical linguistics* (Arnold 1996), mardulagoa. Arlo honetan, beste liburu baten argitaratzaile-kidea da, hots, *Time depth in historical linguistics* (McDonald Institute for Archeological Research 2000). Bai liburu hauetan eta baita idatzi zituen iruzkinetan ere hizkuntzalaritza historiko eta konparatiboaren metodo tradizionalen defendatzaile sutsu agertzen zaigu. Larryk oso ideia garbiak zituen hizkuntzalaritzaren helburu eta metodoez, eta zerbait bere arloaren kalterako zela ikusten zuenean ez zen ixilik geratzen.

Baina hemen, Euskaltzaindi honetan, hitz hauek irakurtzera hots egin badidazue, Larry Trasken euskalaritzaren arloan egin duen ekarpenagatik da. Zer egin zuen Larry Trasken euskararen alde? Alde batetik, euskararen egitura eta historia gaitzat hartzen duten lanak ditugu. Hauen artean, dudarik gabe nabarmenena bere *The history of Basque* (Routledge 1997) da. Liburu honetan euskararen jatorriaren eta bilakaera historikoaren gaineko ordurarteko ezagutzak bildu zituen eta horretan oinarrituta, sintesi berri bat egin zuen hainbat puntutan analisi berri eta argigarriak eskainiz. Liburuan bertan Trasken aitortzen du aintzin-euskararen eraikuntzaren arkitekto nagusia Mitxelena izan zela. Mitxelenak ipini zituen zimentarriak eta etxea eraiki. Hala ere, Trasken eraikuntzari erantsi zizkion gelak eta egin zituen apaindurak etxea edertu dute. Gaurregunezinekoa da euskararen historiari arduratzea Trasken liburua erabili gabe. Liburu honi esker mundu zabaleko hizkuntzalari askok ezagutu dituzte euskalaritzaren nondik-norakoak.



Esan behar da Trasken *The history of Basque* izenburuak esaten duena baino askoz gehiago dela. Kapitulu batean, adibidez, euskararen egituraren laburpena eskaintzen digu. Beharbada orrialde gutitan egin den euskal gramatikaren laburpenik onena da. Beste kapitulu batean, euskararen izterlehengusuez proposatu diren teoriak berrikusten ditu, ia beti oso kritikoki. Liburu honetaz gain, *Towards a history of the Basque language* (Benjamins 1995) argitaratu zuen Joseba Lakarrarekin eta nirekin eta zenbait artikulua garrantzitsu argitara eman zituen han-hemengo aldizkari eta liburuetan; horien artean, bat baino gehiago euskaraz idatzita: «Euskal izen sintagmaren egitura», Piarres Lafitte-ri omenaldiko liburuan (*Iker* 2), adibidez. Hilobira eramango zuen gaitzak hartu zuenean euskal hiztegi etimologiko batean lan egiten ari zen.

Baina euskara bera gai duten lan hauek bezain garrantzitsua euskara eta euskal ikasketak zeharka ezaguterazteko egin zuen lana da. Hona datu batzuk esaten dudana frogagarri: *A dictionary of grammatical terms in linguistics* delako hiztegian 28 sarreratan aipatzen da euskara, gaizki kontatu ez badut. *The dictionary of historical and comparative linguistics* delakoan, 75 sarreratan. Gauza bera aurkitzen dugu Trasken beste hiztegiatan: euskarazko adibideak alde guztietatik agertzen dira hizkuntzalaritza orokorreko kontzeptuak azaltzeko. *A dictionary of phonetics and phonology* hiztegia erabiltzen duenak euskarazko adibideak aurkituko ditu hurrengo sarrerak irakurtzen dituenean, beste batzuen artean: *affective form* (*zoko* /*xoko*, *txoko*, *Txuri-Urdiñak*), *assimilation* (*iduri* > *Z üdürü*), *citation form* (*ikus*, *ikusi*, *ikustea* euskalkietan barrena), *clitic* (B be) *coalescence* (*urzo* > *uso*), combining form (*gizon*, *giza*-), *consonant harmony* (*sasi*, *itsusi*, *itsasi*, *sinetsi*, *zezen*, *zortzi*, *zurtz*, *izotz* baina ez *\*sazi* edo *\*itzusi*; *sinetsi* < *zin* + *-etsi*), *consonantization* (*jan*), *denasalization* (*zāi* > *zai*), *devocalization* (*gau/gaba*), *diaphone* («j»aren ahoskera desberdinak euskaraz), *folk etymology* (*zana-horia* > *zainhoria*), *haplology* (*sagar* + *ardo* = *sagardo*), eta beste askotan.

Trasken testuliburetan ere behin eta berriz egiten dugu topo euskarazko datu eta gertakariekin. *Historical linguistics* liburuan, esate baterako, euskararen datuez baliatzen da, hurrengo kontzeptuak azaltzeko: Hitz elkartuak (*burubero*, *joan-etorri*, *musu eman*, *eztabaida*), sudurkatzea (*sabanu* > *zamau*), gogorketa (*\*erur* > *B edur*), bokalen gorapena (*astoa* > *astua*), bokal aurrerapena (*dut* > *Z diüt*), arauen berrinterpretazioa (*-l-* > *r*, *\*gali* > *gari*, baina gero *r* > *l* elkartuetan, *zamari* > *zamaldun*), berranalisia (*nor bait-dator* > *norbait dator*), analogiaren legeak (*artile* > *ardi ile*, *nonbait* > *nunbaiten*, *Zarautza* > *Zarautzera*), gramatikalizazioa (*-tasun* > *tasun*, *tasunezko*), ergatibotasuna, metodo konparatiboaren mugak eta arriskuak, hizkuntzen arteko kontaktua, hizkuntz plangintza, hizkuntzen aurre-historia, hizkuntz paleontologia. Liburuaren ariketetan ere euskarazko gertakari ugari aurkitzen ditugu.

*Introducing linguistics* liburuxka marrazkiduna da, irakurleko zabal-zabalarari zuzenduta, hizkuntzalaritzaren gai eta helburuak era atsegin batean azaltzen dituena. Liburu honetako orrialde guttietan ere egin zion tartetxo bat euskarari. Hain zuzen, orrialde oso bat euskara batuaren garapenari eskaini zion, euskalkien arteko aukera desberdinak azalduz. *Language: The basics*, hizkuntzalaritza arlorako sarrera mardulagoan, 9 aldiz aipatzen du euskara, eta aipu batzuk luze xamarrik dira.

Esan daiteke Larry Trasken lanari esker euskara hizkuntza exotikoa izatetik oso hizkuntza ezaguna izatera pasatu dela munduko hizkuntzalarien artean. Pentsatzen dut badela hau arrazoi nahikoa Larry Trasken bizitza ospa dezagun gaur zuok euskaltzainok eta Euskaltzaindian ez gauden euskalariok ere.

Bilbon, 2004-V-28

José Ignacio Hualde,

University of Illinois at Urbana-Champaign